IRRIBARRETSU ETA BAIKOR KANTXAKO LEHIAN

KALAPUTXA

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA · 2019ko apirila · 193. zenb.



Eneritz Lizardi Azpiazu

MUTRIKUKO GAZTE ASANBLADAK 20 URTE

GURE TXAKURRAK (I): ZELAKO LANA, HALAKO IZENA

HILABETEAK: APIRILA



Klika aek 21. korrika MUTRIKUN

ZIENTZIA ASTEA IKASTOLAN

- Etxea apaintzeko proiektuak
- Altzariak
- Sukaldeak
- Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

AB AROZTEGIA
BARRUETABEÑA Hnos, S.A.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA
Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.com



Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Botikak	
Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26
	626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50
	630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77
Idoia Lafuente (Eibar)	943 25 44 10

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte	943 60 42 47
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa (Deba)	943 19 23 60
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 89 92 24
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
ANTON taxia	666 22 19 99
XABI taxia	656 28 90 26
Lurraldebus	943 41 52 08
Pesa Autobusak	902 10 12 10
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Santa Catalina eleiza	943 60 32 00

AHUAKATEAREN HERRIA

Mijoako Errotaberri baserrian egindako sagardoa aurkeztu genuen iaz Usurbilgo Sagardo Eguneko txapelketara. Apal joan ginen, botilak eskutan.

- "Kontxo, Mutrikun ere sagardoa egiten al da, ba?" – antolatzaileek, ironiaz.
- "Bai, gure tio Joxeba sagardogile handia da, eta aurten ere egin dugu, egurrezko upelean. Sartu hozkailuan botilak, mesedez, sargori dago eta gurea sagardo naturala da eta..." – beldurrez guk.

Apaltasuna bertute handia da. J.M. Barandiarani esan omen zion amak: "Ikasi, Joxemiel! Sagarrondoa zenbat eta sagarrez beteago, orduan eta makurrago; pertsonak ere, zenbat eta jakintsuago, orduan eta apalago behar du!". Halakoxea da tio Joxeba. Jakintsua, baina apala. Eta horixe erakutsi digu guri ere. Sagardo Egunean, epaimahaiko Jakoba Errekondo ezagutu genuen. Nongoak ginen galdetu zigun, eta guk mutrikuarrak ginela erantzun. Eta Jakobak: "A! Ahuakatearen herrikoak orduan...! – esan zigun.

Ahuakatearen herria da Mutriku Jakobarentzat. Horixe dago bere imajinarioan, Piñastegiko ahuakate arbola handia. Denok lotzen ditugu lekuak zerbaitekin. Eta horixe da herriaren "marka".

Elgoibartik Mutrikura etorri aurretik, nire imajinarioan Mutriku herri "txikia", "euskalduna" eta "piszina naturalduna" zen. Horixe zen Mutriku niretzat. Perfektua, familia hazteko eta hezteko.

Txikia izateak baditu bere abantailak. Gaur-gaurkoz, animalia espezie handiak desagertzen ari dira planetatik, eta txikiak mantentzen dira. Mamutak desagertu ziren, eta elefanteak desagertzear daude... Txikiek, aldiz, egokitzeko gaitasun hobea daukate. Txiki eta euskaldun izateak ere baditu abantailak. Duela 2.000 urte Pirinioetan topo egin eta halaxe esan zion artzain euskaldunak erromatar harroputzari: "bi mila urte barru, zure hizkuntza handia (latina) desagertuta egongo da, eta nire hizkuntza txikia (euskara) biziko da oraindik...". Eta halaxe gertatu.

Piszina naturalaren onurak aipatzeko, artikulu oso bat beharko nuke... Zaindu eta manten dezagun, geure zoriontasunerako!

Mutrikuk bere esentzia mantendu beharra dauka. Eta herritarron garapena, aberastasuna eta kohesioa bultzatu behar ditu. Soziala, kulturala eta ekonomikoa. Eta hori hezkuntzaren bidez egiten da, batez ere. Horra nire programa elektorala.

Baina, txikia, euskalduna eta naturala izateaz gain, Martxoaren 8an ikusi dugu Mutrikuk "feminista" ere izan nahi duela. Bai, feminista. Nola ez. Emakumeak eta gizonak. Feministak. Denon onerako. Mutrikuko talde eta erakunde guztiak, feministak. Izan ere, izan al daiteke Mutrikun euskaltzalea eta naturazalea, feminista izan gabe? Eta izan al daiteke feminista, euskaltzale eta naturazale izan gabe?

Argitaratzailea Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus - kalaputxi2001@gmail.com
web http://www.kalaputxi.eus Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzaileak Mutrikuko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia
Kolaboratzaileak Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga.
Tirada 2.200 ale Lege Gordailua SS-787/01 ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

						ostr. lanegun
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	Ig 20:30	Lr 21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	Lr 7:15	Ig 8:15	orduro	20:15	21:25	Lr 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	Lr 6:50	Ig 7:45	orduro	Lr 21:45	Ig 19:45
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35
Mutriku	7:55	8:55	orduro	22:55	20:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Lr 8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	Lr 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	Lr 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	Lr 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	Lr 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxi.eus/garraioa

Kalaputxik ez du bere gain hartzen aldizkarian hirugarrenek adierazitako esan-iritzien erantzukizunik.

ESKERRIK ASKO

Eta 21.a ere pasa da. Eta oraingoa ere txapela kentzeko modukoa izan da. Ez du publizitate handirik behar, KORRIKA entzun eta segituan daki bakoitzak zer egin behar duen, nola parte hartu.

Berroigeita bost eragile KLIKA egiten. Berrogeita bost eskuk baino gehiagok oratu dute Euskal Herrian zehar, eskuz esku ibili den lekukoa. Emozioz gainezka oraingoan ere, horixe da KORRIKAk lortzen duena, urte luzeen ondoren ere, barruak astintzea, KLIKA egitea.

Eta parte hartzaile guzti horiek gabe, ezin. Eta gabonak ondoren astero bildutako talderik gabe, ezin.

Gure xumetasun horren barruan, KORRIKA txikia, KORRIKA kanta... ikastetxeetan landu dituzten lanketa guztiak osatu dute 21. KORRIKA. Eta kamisetak saltzen, txokolatea prestatzen, kilometroak neurtzen, kartelak jartzen, kutxatxoak prestatzen, taldeekin harremanetan, dirua biltzen, armosua prestatzen, ingurua girotzen... lan guztiak eta gehiago lan talde xumearentzat.

Ez zarete makalak! ESKERRIK ASKO beste behin ere guzti-guztioi.

Gora zuek!

Auro Ansorregi Altzibar

BERRIZ ERE ZUEN AURRERA

Duela lau urte Kalaputxiko orrietan agur esan nizuen lau urtetan Alkate karguan izan ondoren. Garai gogorrak izan ziren haiek, eta aldi hartan hustuta amaituta, atsedena hartu behar izan nuen gorputzak eta buruak hala eskatzen zidatelako.

Maiatzean udal hauteskundeak izanik, oraingoan orri berberetatik neure burua zuen aurrean aurkeztera nator, indarberriturik eta gogotsu, berriz ere mutrikuar guztien Alkate izateko bidean jartzea erabaki dudalako. Uste dut ordukoak baino garai hobeak ditugula, eta orduan burutu ezin izan genituen gauza asko egiteko gaudela. Bidean kezkak, sufrimendua, arazoak eta haserreak egongo direla badakit. Baina horien ostean alaitasuna, konponbideak eta pozak etorriko direla ere badakit. Arantzarik gabeko larrosarik ez baitago.

Alkate izateko bidea luzea eta gogorra izango da, baina bidean mutrikuarren laguntasuna izatea espero dut, orain eta gero, gure herriaren etorkizuna mutrikuar guztion ardura izan behar delakoan. Ni prest naukazue neure ardurari heltzeko.

Joseba Palenzuela Arrieta

Gutunak izen abizenekin bidali: kalaputxi2001@gmail.com
edota aldizkaria@kalaputxi.eus

MERKATU TXIKIA

ZURE MEZUA ESPAZIO HONETAN AGERTU NAHI BADUZU, IDATZI HONA: aldizkaria@kalaputxi.eus

ALEMANIERA-ESKOLAK BEHAR DIRA

13 urteko ikasle batek alemaniera ikasten hasteko lehenengo klaseak behar ditu, astelehen arratsaldeetan.
Harremanetan jartzeko: 665746459

TERRENO BAT EROSI NAHI

Baratzatxoa egiteko moduko terreno txikia erosi nahi dut. Gehienez 10.000 euro ordainduko nuke.
Ahal dela, aldaparik izan gabe.
Interesatuak, idatzi: aldizkaria@kalaputxi.eus

IBARPLAS
leihoaren erreferentzia
Itziarko poligonoa, C pabilioia · 20200 ITZIAR · Tel. 943 199226 · www.ibarplas.com · ibarplas@ibarplas.com

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

ZIENTZIA ASTEA IKASTOLAN

Apirilari hasiera bizia eman diogu; alde batetik, zientziaz gozatzeko aste ederra izan dugu. Bertara, hainbat ikastetxe eta gonbidatu etorri zaizkigu beraien lanak eta bizipenak azaltzera. Bestaldetik, bertso eskolaren eskutik, bertso-trama musikatuaren bitartez ikastetxearen ibilbidea entzun eta ikusi dugu.

Goizeko Izarra ikastolaren 50.urteaurrena ospatzen ari garen honetan, ikastetxean aurrera daramagun STEAM proiektua helarazi nahi izan dugu. Hain zuzen ere, egunerokoan burutzen ditugun lanak azalarazi nahi izan ditugu: ikasleen motibazioa STEAM bokazioekiko suspertzeko, gurasoek beraien haurren hezkuntza prozesuan duten eragina azpimarratzen jarraitzeko, eta batez ere, emakumeek STEAM bokazioetan duten garrantzia nabarmentzeko.

Goizeko Izarra Ikastolako Hezkuntza komunitateko kideek Zientzia Astean izan dituzten ekintzetan gustura eta irrikaz parte hartu dute, DEBEGESAko eta Berritzegune Nagusiko kideekin batera.

Apirilaren 1ean eman genion hasiera eta hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasle, guraso eta irakasleek STEAM txokoetan parte hartzeko aukera izan zuten: MEKA Lanbide Eskolarekin, IMH Makina Erramienta institutoarekin, Azkoitiko Izarraitz Lanbide Heziketarekin eta Mutrikuko BHI-rekin.

Txokoetako batean, MEKA-n irakaslea den Iñaki Urreistirekin, soldadura eta galdaragintza landu zuten ikasleek. IMHko txokoan aldiz, Alaitz Bastida (Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa) eta Larraitz Zubeldia (Mekatronika Industrialekoa) kideak izan zituzten. Horrez gain, laugarren, bosgarren eta seigarren mailakoek Azkoitiko IZARRAITZ Lanbide Heziketako irakaslea den Roberto Sotorekin eta bere laguntzaile Larraitzekin 3D inprimagailuaren urratsak ezagutzeko aukera ere izan zuten.

Mutrikuko Institutoko ikasle eta irakasleen eskutik, laugarren mailakoek teknologia landu zuten eta seigarren mailakoek biologia eta geologia.

Horrez gain, gure ikasle eta irakasleek ere, txokoetako bat bideratu zuten. Izan ere, HH 5 eko eta LH 1eko haurrek imanekin eta magnetismoarekin olgatzeko aukera izan zuten, LH 4ko ikasleek lagunduta.

Apirilaren 2an, asteartean, Altxorraren Bila jolasa burutu zuten; ibilbidean zehar aurrera egiteko hainbat froga eta esperimentu egin behar izan zituzten Elhuyarreko kideekin batera. Ikasleek nahiko lan izan zuten frogak gainditu eta beraien urduritasuna mantentzen.

Asteazkenean berriz, EMAKUMEAK STEAM BOKAZIOETAN tailerrak izan zituzten. Bertan, Nagore Elurekin fruituetako euliak aztertzen aritu ziren, Oroitz Sanchezekin Newton legea frogatzen, Nerea Iriondorekin kautxoekin esperimentatzen, Amaia Kaltzakortarekin automozioa lantzen, Nahia Gartziarekin lurzoruaren zientziak ikertzen eta Aranzadi





MUTRIKUKO TANATORIOA
Ntra. Sra. de Begoña EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

Uzuri RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

1968 - 2018
URTEURRENA

GOIZEKO IZARRA IKASTOLA

elkarteko Jesus Tapiarekin arkeologia eta Virginia Garciarekin astronomia lantzen aritu ziren.

Astea aurrera, ostegunean, lehenengo mailakoak Kardala Akuakultura eskolara irteera egin zuten, eta bigarren mailakoak Robotika tailerra izan zuten.

Ostiralean ostera, Zientzia Asteari bukaera eman nahian, astean burututako ekintzen aurkezpena egin zuten laugarren mailako neska-mutilek.

Honenbestez, Zientzia Astean Goizeko Izarra Ikastolako hezkuntza komunitateak esperimentatuz eta gozatuz, jakintzak barneratu eta konpetentziak garatu dituzte. Are gehiago, haurrek, batez ere gure neskatoek, etorkizunean STEAM bokazioetan irudikatu dituzte beraien burua.

BERTSO-TRAMA

Eta, apirilaren 13an, Goizeko Izarra ikastolaren urteurrenaren barnean, beste behin ere, Mutrikuko Bertso Eskolak bere alea jarri du. 50 urte hauetan izandako gertaera esanguratsuenak aukeratuz, 10 eszenako Bertso Trama Musikatu ederra egin zuten. 10 eszena horien bidez, Ikastolaren sorreratik eta gaur egunera arteko ibilbidea kontatzen da bertsoa ardatz hartuta. Musika ere jarri zioten bertsoari Garoa Arizmendiren laguntzaz. Ederra benetan.

Halatan, jarraitu dezagun jai giroan, maiatzaren 4an ere, Ikasle ohien bazkari ederra izango baitugu. Animatu guztiok!





Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

MUSIKFEST 2019

Martxo bukaeran Lei-artibai eta Mutrikuko Musika Eskolek *MusikFest* jaialdia antolatu zuten. Aurten Ondarroan ospatu zen, aurrerantzean bailarako beste herrietan egiteko asmoarekin. Mutrikutik hainbat taldek parte hartu zuten: Trikitixa taldea, Txistulariak, Korala, Madalen Txiki, Anaiarte Abesbatza, Folk taldea, Euskal Musika Taldea, Soka taldea eta Duyatole taldea. Eguraldia lagun, oso giro polita sortu zen Ondarruko kaleetan nahiz areto barruko ekitaldietan. Guztira 400-500 musikari bildu ziren Ondarroako kaleetan. Bestalde, Berdel eguneko jaian, Abesbatzen ohiko kontzertua izan zen Zabiel Plazan. Trikitixa taldea ere, kalez kale izan zen jai giroa alaitzen. Udaberria musikaz blai.



GIPUZKOAKO BERTSOLARITZA TXAPELKETA

2019ko irailetik abendura bitartean, *Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa*ren izango da. Aurretik, maiatzean hasita, *Gipuzkoa Bertsotan* sailkapen fasea jokatuko da. Mutrikuko saioan honako sei bertsolari altxatuko dira oholtzara bertsotan egitera: Ane Labaka, Gorka Maiz, Eneko Araiztegi, Eneko Baretxinaga, Unai Izagirre eta Julen Zulaika. Gai jartzaile, Unai Belaustegi mutrikuarra. Arratsaldean zeharreko lanak, hauexek:

- Binaka, gaia emanda, zortziko handian, hiruna bertso.
- Binaka, gaia emanda, zortziko txikian, hiruna bertso.
- Bakarka, lehen puntua emanda, zortziko txikian, bina bertso.
- Bakarka, gaia emanda, nahi den doinu eta neurrian, bina bertso.
- Kartzelako lana: binaka, gaia emanda, hamarreko txikian, hiruna bertso.

Behin Gipuzkoa Bertsotan fasea amaituta zehaztuko da zein bertsolarik hartuko duten parte 2019ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan.

Saioa maiatzaren 11n izango da, larunbata, Zabiel kultur Etxeko ganbaran, arratsaldeko 5etan hasita.



ENPRESA EKIMEN BERRIEN SORRERA SUSTATZEKO TREBAKUNTZA

Enpresa berrien sorrera eta ekintzailetza sustatu eta laguntzeko helburuarekin, Mutrikuko Udalak eta Debegesa garapen agentziak doako trebakuntza ikastaroa antolatu dute mutrikuarrei zuzenduta. Enpresa edo negozio propioa abian jarri nahi duten herritarrei dago zuzenduta egitasmoa. Ez da beharrezkoa aurrez negozio-ideia bat izatea. Ikastaroaren baitan, partaideen sormena sustatuko da eta sektore berrien inguruko xehetasunak azalduko dira, negozio ideia berriak sortze aldera. Ekintzaileei bidea erakustea eta ideia bat daukatenetik martxan jartzeko prozesua zein den erakustea izango da helburua. Euren proiektuak bideratzeko banakako aholkularitza ere jasoko dute. Ikastaroa maiatzaren 6tik 10era eskainiko da, 15:30etik 19:30era, Luardo Etxean. Guztira, 20 orduko prestakuntza izango da eta Debegesako teknikariek emango dute. Parte hartzea doakoa da, aurrez izena emanda 943820110 telefonora deituta (Jone Txurruka), edota berrikuntza@debegesa.eus helbidera idatzita.

Ekintzailetzari buruzko hitzaldia, maiatzaren 2an

Enpresa-sorrera ikastaroa hasi aurretik, maiatzaren 2an, 18:30ean, ekintzailetzari buruzko hitzaldia egingo da Zabiel Kultur Etxean, *"Ekintzailetza? Eta zergatik ez?"* izenburupean. Bi emakume ekintzailerekin solas egiteko aukera izango da: Ainara Garcia, Interneteko eduki sortzailea, eta Aitziber Badiola, Irudi Aholkularia eta Personal Shopper-a. Emakume ekintzaile hauen esperientzia gertutik ezagutzeko aukera izango dute bertaratzen direnek, eta prozesuan bizi izan dituzten zailtasunen inguruan galdetzeko aukera ere bai.

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

ENEKO SAGARMENDI, TXAPELDUN

Euskal Pilota Egokituko II. Master Cup txapelketaren finala Beasainen jokatu zuten apirilaren 7an. Antzitzar pilotalekuko harmailak oso-osorik beteta zeudela, ikusgarritasuna izan zena txapelketa honen benetako arrazoia. Kirolariek euren alea jarri zuten, eta harmailetan eserita egon ziren zale bat baino gehiago harritu zituzten jokalariek palaz duten gaitasuna erakutsiz. Finalean, Errenterian bizi den Eneko Sagarmendi mutrikuarrak eta Leire Esnalek osatutako bikotea 25-17 nagusitu ziren. Zorionak Eneko!



GAZTETXEAK JASO DU BERDEL AIPAMENA

Berdel egunaren bezperatan, Gaztetxeari eman zitzaion aurtengo Berdel Aipamena. Saria jasotzera duela hogei urte Mutrikuko Gazte Asanblada sortu eta Gaztetxea abiatu zuten orduko gazteak eta gaur egungo gazteak bertaratu ziren. Saria ematean, Alkateak azken bi hamarkadetan gure herrian kultur eskaintza zabaltzearren egindako lanaren errekonozimendua egin zuen. Gazteek, berriz, saria jaso osteko hitzetan, etorkizunean ere orain arteko eskaintzari jarraitzeko asmoa dutela adierazi zuten. Aipagarria, gazteen hurrengo belaunaldia ere izan zela ekitaldian, duela hogei urteko gazte haien umetxoak hain zuzen. Mutrikun bada etorkizunik gazteengandik!



URAZAMENDIK AUZOTARREN ALDARRIA

2018ko uztailaren 5ean, Deba ibaiaren bi ertzak lotzen dituen zubiaren zutabeetako batek eman zuenez geroztik, zubia itxita dago. Zubi hori izan da egin zenetik Urazamendik auzoan bizi diren 300 pertsona inguruk eguneroko bizimoduan Debara joateko nahitaezko pasabidea. Orain, ordea, auto partikularretan, orduro pasatzen den autobusean edo errepidearen bazterretik oinez egin behar bi kilometroko ibilbidea.

Mutrikuko eta Debako udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundia lehen unetik zubiaren berreraikuntzari begira lanean jarri ziren eta oinezkoentzako pasabidea ere jarriko zutela agindu zuten. Auzotarrek nahi baino denbora luzeagoa iraganda, egin dute pasabidea, baina zubiaren obra egiteko ezarritako egituraren gainean, hiru metroko altueran, eta, gainera, lanen beharrengatik edo segurtasunagatik itxita egon ahal izango da.

Hori dela eta, zubiko lanak zenbat luzatuko diren kontuan hartuta, auzoko bostehun bizilagun nahiz haien lagun zubiaren aurrean bildu ziren eta Aldundiari oinezko bidea aldatzeko, igarobide seguru eta irisgarria egiteko eta garraioaren maiztasuna handitzeko eskatzeko manifestua irakurri zuten.



GARBIGUNEA ITXITA HURRENGO HILABETEETAN

Debabarrena Mankomunitatetik jakinarazi dutenez, apirilaren 26tik aurrera Mutrikuko garbigunea eta transferentzia-estazioa (Laranga auzoa) lau hilabetez egongo dira jendearentzat itxita, GI-638 errepideko konponketa-obrak egikaritzeko aurreikusitako aldian, obra horiek Debako eta Mutrikuko udalerriak batzen dituen tartean egingo direlarik. Garbigunean hondakin motaren bat utzi behar duten mutrikuarrek mankomunitateko garbiguneen sareko Elgoibarkoa izango dute hurbilen, Arriaga industrialdean, autopistaren sarrera paretik sartuta. Arreta-ordutegia honako hau da: Astelehenetik ostiralera 09:04tik 12:56ra eta 16:04tik 18:08ra; larunbatetan 09:04tik 12:56ra; igandeak eta jaiegunak itxita.

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

aparra
ZURETZAKO MODA
www.aparramoda.com
Erdiko Kale 29 20830 Mutriku Tlf. 943 604 594 645 033 561

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

Dagoeneko hasia da urtero datorren Errenta aitorpenaren kanpaina. Mutrikuarrok ere hasiko ginen aitorpenak egiten eta Ogasunean aurkezten. Gogora dezagun aitorpena euskaraz aurkezteko modua dugula, eta, gure eguneroko bizitzan euskaraz bizi bagara, errenta egiteko garaian ere gure betiko moduan egin dezakegula: euskaraz.

IKASTOLAKO IKASLE OHIEN EGUNA

Goizeko Izarra Ikastolaren 50 urteurrenean hainbat ekitaldi antolatu dituzte dagoeneko. Azkena, apirilean egindako *Bertso trama musikatua*. Hurrengo hitzordua, maiatzaren 4an izango da, egun osoko egitarauarekin *Ikasle ohien bazkaria* antolatu baitute. Frontoiko aforoa mugatua denez, txartelak aurrez hartzea komeni, antolatzailkeek esan dutenez.

MIKROIPUIN LEHIAKETA

Helduen mailan 65 ipuin aurkeztu dira eta gazteen mailan, berriz, 46. Guztira 109 lan aurkeztu dituzte herriko eta inguruetako literaturzaleek, aurkeztutako lanetako asko, gainera, mutrikuarrek idatziak. Maiatzeko Kalaputxin lehiaketako irabazleen berri emango da eta, jakina, ipuin irabazleak ere irakurtzeko moduan jarriko ditugu.

NESKA RUGBYLARIAK SELEKZIOAN

Joan den martxoan hamabost urte azpiko nesken selek-zioen topaketa izan zen Senperen. Bertan, Mutriku Rugby Taldeko bi jokalarik hartu zuten parte Gipuzkoako selekzioarekin; Xua Urangak eta Inaya Endeizak hain zuzen ere. Topaketa horretan Gipuzkoako selekzioarekin batera, Iparralde, Landak, Gironde, Garonne eta Arcachoneko selekzioek hartu zuten parte. Eguna eguraldi ederrarekin eta oso giro onean igaro zen, eta gure jokalariek beren maila erakutsi zuten. Maiatzean beste topaketa bat egingo da, eta han ere Mutrikuko neskak parte hartuko dute. Bide batez, mutrikuar guztiak gonbidatu nahi ditugu igande goizetan izaten diren rugby saioetara joateko, dagoeneko kirol hau ezagutzen ez dutenek ikusten gozatuko dute eta.





MUTRIKUARRAK RALLY SOLIDIARIOAN

Mikel Astigarraga eta Roberto Sanfilippo mutrikuarrek *Rally Solidario.com* ekimenean eman dute izena irailean Marokora joateko. Bidaia horretan bi motibazio izango ditu bikoteak: batetik, motorzaletasuna eta, bestetik, beharrean daudenei laguntza ematea. Aukera baliatuz, irailaren 2tik 8ra herrialde berri bat ezagutzera abiatuko dira, hizkuntza, kultura, ohitura eta jateko modu berri bat ezagutzera eta, aldi berean, Mutrikutik kotxea beteta eramandako jantzi, jostailu eta eskola materiala argindarrik eta edateko urik iristen ez den tokietako jendeari zabaltzera.







Garestik Gasteiza **Mutrikun** barrena



HITZA



MUTRIKU FUTBOL TALDEA



GAZTETXIA



MUSIKA BANDA



TXANTXANGORRI



SOKATIRA TALDEA



MUTRIKUKO ROCK KOLEKTIBOA



ERRALDOIEN KONPARTSA



RUGBY TALDEA



NATUR TALDEA



BERDEAK+INDEPENDENTEAK



EH BILDU



EAJ



MUTRIKUKO UDALA



GOIZEKO IZARRA Antzerki Taldea



GURE AMETSA dantza taldea



ERREALAREN LAGUNAK



ATHLETIC PEÑA



TXALAPARTA



ANAIARTE



ZABIEL ESKULAN TALDEA



BERTAN



AMNISTIAren aldeko
Mugimendua



SAMIELA gurasoak



SAMIELA ikasleak



IKASTOLA ikasleak



IKASTOLA gurasoak



INSTITUTUA gurasoak



INSTITUTUA ikasleak



INSTITUTUA langileak



KARDALA Institutua



DANOK BAT pilota elkartea



BERTSO ESKOLA



ATXUKALE txirrindu taldea



ARRAUN TALDEA



MUBAE



ZINE FORUM



SORGINERREKA eskalada taldea



BURUMENDI mendi taldea



Emakumeak Mutrikun Abian



ARBE Hotela



ARTE ESKOLA



TRANPAN BEHERA



BAI TXO! MINTZALAGUNAK



KALAPUTXI



Eskerrik asko


KORRIKAren 21. edizio honetan lagundu duzuen mutrikuar guztioi

Argazkiak: Asier Alkorta (HITZA)

APIRILA

"APIRILEKO EGUNAK, HIRU ARO"

"Apirila, euri pila" dioen gaztelaniazko esamoldea, ezaguna egingo zaizue askori (esamoldeak horixe dio, baina beste hitz batzuekin). Euskaraz ere badaude esaera zahar mordo bat hilabete hau eta euria lotzen dituztenak; besteak beste, "Apirila, ekaitz illa" edota "euri lantxe (meha, goxoa) apirillean, antxoa bitsa molla gañean". Esaera zaharrek asko esaten eta erakusten digute (lurraz, naturaz edota garai bateko bizimoduaz/ohiturez), eta hilabete hau euriarekin ere zerbaitengatik lotuko zuten. Ez da kasualitatea, artikulua idazten ari naizen une honetan ere gogotik ari baitu.



Batuan esaten dugun apiril hitza (Gipuzkoako zenbait tokitan "apiribil") latinezko aprilis hitzetik datorrela dio zenbait adituk. Aprilis hitzak ireki eta itxi esan nahi omen du, eta diotenez, izen hau hartzen du hilabete honetan baso eta landak berriz bizia hartzen dutelako. Hala ere, badaude apirila "abere+illa (hilabetea)" baturatik datorrela esaten dutenak ere. Eta hori zergatik?

Hainbat testu aztertzen aritu ostean, hilabete honi deitzeko "Opailla" hitza ere erabili izan dela aurkitu dut. "Opailla", opa egiteko hilabetea omen da. Hortaz, horra hor "aberilla" eta "opailla" hitzen arteko lotura. Opatzea eskaintzea da, eta horretarako hilabetea denez, abereak eskaintzen zituzten opari gisa. Azken bi izen horiek ere, egia esan, badute beren zentzua.

Esandakoak esanda, hilero bezala, hona hemen hilabete honi deitzeko Euskal Herriaren luze-zabalean historian zehar erabili izan diren izenak, eta gaur egun erabiltzen diren batzuk: apirila, apiribil (N, G), aprila (G), aprile (B), aber(e)illa, opailla, opia, jorraila (B, Z), gorraila...

Zerrenda horretan dauden gehienak aurrerago azaldu ditugun arren, landa munduarekin zerikusia duena gelditzen zaigu oraindik: jorraila.

Jorraila (jorratu+ila), hitzak berak esaten duen bezala, lurra jorratzeko edota sasiak kentzeko hilabetea da; hau da, lurra jorratu eta erein edota landatzeko garai betean gaude. Hilabete honetan hasten da jorratzeko sasoia. Hori ondotxo dakite landa munduan aritzen direnek.

Behin horiek guztiak aipatuta, amaitzeko, Mutrikun nola esaten zuten ikusiko dugu. Hemen, Kalaputxin, hilero mutrikuarrez idazten duen Josu Larrañaga adiskideak orain dela urte batzuk Mutrikun hilabeteak nola esaten ziren aztertu zuen. Berak herrian jaso zituen forma zaharrenak apirilla eta aprilla izan ziren, baina une horretan herrian mutrikuar askok abrilla forma erabiltzen zuela aipatu zuen.

Euskarazko hitz batzuk latinetik etorriko dira, beharbada, baina baliteke guk uste baino gutxiago izatea horiek. Hizkuntzak eta hitzak urteak joan ahala moldatzen/garatzen joaten dira, baina beti ez da erraza argi jakitea gauza bakoitza zein hizkuntzatatik datorren (adibidez: latinetik euskarara edo alderantziz).

Nire aholkua: guztia entzun, dena ez sinetsi eta zeure ondorioak atera. Beti ez zara egia osoaren jabe izango, baina beste askotan edo batzuetan agian bai.

Ibon Aginaga Imaz





ENERITZ LIZARDI AZPIAZU

irribarretsu eta baikor kantxako lehian

Kirolari trebea eta saiatua dugu Eneritz. Asteburu guztietan lehiakor ari da jo eta su, orain frontoian, orain futbol-zelaian. Haur zelarik heldu zion xisterari, eta, neska batek eduki ditzakeen oztopoak alboratuz, kantxan aritzen da bere adineko mutilekin, batzuetan bikote, besteetan aurkako. Nahiz eta zesta-punta duen gustuko, ez ditu uzten, horregatik, futbol-zelaiko betebeharrak, tinko eutsiz porterian sartu nahi dituzten baloiei. Are gehiago, ez da batere kikiltzen eszenatokira igotzen antzerkian egokitzen zaizkion rolak betetzeko.



Noiz hasi zinen kirola praktikatzen?

Beste umeak bezala hasiko nintzen lehen jolasak egiten plaza inguruan. Beranduago, kirol-eskolan praktikatu nituen futbola, eskubaloia eta saskibaloia, baina gogoan gelditu zaidana da, nola hirugarren mailan nebilela, zortzi-bederatzi urterekin, frontoian zesta hartu nuen lehenengo aldia. Ez neukan beste zer eginik, eta nebarekin joan nintzen, denbora pasa, frontoira. Osaba Asierrek probatzeko esan zidan, eta, hala, zesta hartu eta frontisaren aurka lakaina jaurtitzen ibili nintzen apur bat. Gustatu egin zitzaidan, baita Jane Arreitunandia lagunari ere, eta, horrela hasi ginen biok zesta-punta praktikatzen mutilekin batera, astean bi aldiz.

Laster hasi al zineten lehiatzen?

Pixka bat moldatu ginenean, jendaurrerako "kinielak" antolatzen zizkiguten igandeetan Mutrikuko frontoian, bikotekide lagunak aldatzen genituela. Baita ere, iparraldean aspalditik antolatzen duten zesta-puntako asteburu bateko txapelketan parte hartu izan dugu. Larunbatean hiru partida jokatzen dira, eta, klasifikatuz gero, igandean jokatzen dira kanporaketak, finaleraino iritsi arte. Seigarren maila dutenez jarrita adin-tope bezala, Jane eta biok animatu ginen mutilekin nahastuta parte hartzera. Horrela, Bidarte, Biarritz eta Donibane Lohitzuneko frontoietan jokatzeko aukera izan genuen. Esan behar, iparraldeko bat eta gu ginela neska bakarrak.

Beranduago, seigarren mailako kurtsoan geundela, hamaika-hamabi urterekin, Gipuzkoa mailako lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen, alebin mailan, eta gaur arte. Mutriku, Donostia, Hondarribia, Zumaia, Tolosa eta Andoaingo taldeek hartzen dugu parte, eta gauden neska apurrek mutilekin batera nahasian jokatzen dugu. Janek lesio bategatik utzi behar izan zuen, eta, orain, mutrikuar neska bakarra naiz jokatzen nire mailan. Atzetik, hamar urte dituzten beste lau neska datoz.

Entzun dugu ez duzula soilik frontoian jokatzen?

Egia da. Frontoian hasi nintzen urte berberekin ekin nion, baita ere, futbolari. Hirugarren mailako kurtsora iristean, eskola kirolean ibili ondoren, futbol-zelaira pasatzeko aukera ematen ziguten, eta unea iritsi zenean, goazen jokatzera! esan, eta San Miguel zelairako bidea hartu nuen, atezain postuan, nire adineko neskekin ekipoa osatzera. Futbolean, zelaian sartu eta batera, inguruko herrietako nesken ekipoen aurka konpetitzen hasi ginen.

Zuek kirola praktika dezazuen, zein garrantzi dute gurasoek?

Futbolean, nahiz eta batzuetan eurekin bidaiatu behar izaten dugun, klubak autobusak ere antolatzen dizkigu, eta materialetan ez dugu beste munduko gasturik. Alderantzizkoa da zestaz jokatzeko gurasoek egin behar duten ahalegina, materialak, kaskoa, zesta, eta abar, garestiagoak dira, eta, dena, gurasoen poltsikotik ateratzen da. Zer esanik ez partidak jokatzerako orduan, gurasoekin ibili beharra izaten dugu batera eta bestera. Bi hitzetan esanda, ia asteburu guztiak izaten ditut gurasoak hipotekatuta, euren laguntzarik gabe ezin izango nuke ezer egin.

Futbola eta zesta asteburutan, entrenamenduak astean

OKINDEGIA POTERO
DENDA.....943603643
OKINDEGIA.943604512

ERAIKUNTZAK OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

zehar... Nola doaz estudioak?

Era onean bideratzen ari naiz, orain artekoak behintzat. Esango nuke, kirolak lagundu egiten didala estudioak xuxen eramaten. Daukadan denbora mugatu hori, ondo antolatzera behartu nau, eta hobeki aprobetxatzera. Baiezta dezaket kirolak asko laguntzen duela kontzentrazio maila lortzen eta disziplina batera ohitzen. Beraz, lasai eta gustura daramat nire estudiante-kirolari bizitza.

Are gehiago, Marisaren antzerki taldean parte hartzeko denbora ere izaten dut. Atsegin dut eszenatokian rol ezberdinak jokatzea. Jendaurrean hitz egiten ikasteko ariketa polita da.

Zein balorapen egingo zenuke zure parte-hartzetik begiratuta emakumeen kirolaz?

Beno, futbolean esango nuke igaro direla une zailenak, eta normalizatzen ari dela emakumeen parte-hartzea, nahiz eta mutilen mailatik oso urruti egon oraindik. Ondo sentitu naiz bai tratuan, aldagela kontuetan, publikoaren jarrera aldetik..., agian, zenbait gurasoren jokaera ezabatu beharra dagoela uste dut, animatu edo txalotu beharrean, zenbaitetan irainka aritzen baitira orain epaileari, orain aurkariei.

Zesta-puntaren mundua, ostera, hastapenetan dago emakumearen parte-hartze kontuetan. Herritik atera nintzen lehenengoetan, ez zuen inork espero neska bat tartean izatea, eta, askotan, etxera dutxatu gabe bueltatu behar izan dut ez zegoelako neskentzako aldagelarik. Dena den, azpimarratu nahi nuke, jarrera eta harreman aldetik, beti hartu nautela abegi onez, antolatzaileek zein arduradunek. Ez dudala inoiz arazorik izan ez aurkari, ez bikoteekin, gehienetan mutilak izan arren. Hasieran kezkatxoa izan nuen arren, ez naute inoiz gutxietsi, eta hori garrantzizkoa da.

Nola ikusten duzu etorkizuna praktikatzen dituzun kiroletan?

Futbolean ez dut ikusten arazorik konpetitzerako orduan; nahikoa aukera ditugu herrian, ahaztu gabe, hor ditugula ekipo handiagoetako begiraleak aurkitzen duten perlei bide berriak eskaintzeko prest (mutilekin gertatzen den era berean). Beste gauza bat da profesionalizatze kontua, gorengo mailetara iritsi arren, gaur egun, oso zaila da hortik bizitzea, ez behintzat mutilen antzera, ezta gutxiago ere. Baina abiada handia hartzen hasi dira gauzak, eta nork daki zer dagoen gertatzeko. Nork pentsatuko zuen, orain gutxi, futbol-zelai handiak zaletuz beteko zirela nesken partiduak ikusteko?

Zesta-puntaren egoera, ostera, oso bestelakoa da. Konpetitzeko muga, nesken kasuan, hamazazpi urte betetzen duten urtean, ezin dute, jada, txapelketetan parte hartu, bikote mistorik ez dutelako onartzen, eta, nola txapelketa bat antolatzeko nahikoa neska ez dagoen, akabo kirol-ilusioak.

Batzuetan bitxikeria bezala erabiltzen gaituzte. Behin Madrilera eraman gintuzten zortzi neska "Xistera" enpresak bideratuta Complutense-ko "Elipa" kiroldegira. Gurekin ziren, baita ere, maila handiko zesta profesionalak eta maila txikiagoko mutilak ere. Erakusketa bat izan zen zesta-punta ezagutarazteko, baina publikoan jende gutxi, eta frontoiak ere ez zituen gutxieneko batzuk betetzen kantxan, nahiz eta inguru apaina izan.


Praktikatzen dituzun bi kirol horietatik, behar izanez gero, zein aukeratuko zenuke?

Gaurkoz ez dut aukerarik egingo, ez dut nahi, bietan jokatu nahi dut. Orain tokatzen zaidana da erreibindikatzea zergatik ezin dudan jarraitu, orain arte bezala, mutilekin jokatzen, nesken txapelketarik ezin bada antolatu jende gutxi dagoelako. Zer aldatzen zaigu urte batetik bestera ezintasun hori gertatzeko? Indarra? Bi pareta onak egiteko ez dugu indar handirik behar; iaioak izateak ez al du ezer balio?

Zer ikusten duzu faltan frontoian zuen trebakuntzarako?

Mutrikun ditugun entrenatzaileak pelotari abilak izanak dira, eta asko erakutsi dezakete, baina bada lantzen ez den alor bat. Gure giharren desarroiloa ez da orekatua, beso bat bakarrik erabiltzen baitugu, eta ziur fisio baten aholkuak komenigarriak izango liratekeela. Azterketa mediku batean, laster nabaritu zidaten desoreka hori. Futbolean egiten dugu zenbait ariketa giharrak eta tendoiak mantentzeko, baina frontoian horien beharrean gaudela uste dut.

Animo, Eneritz, kirol ibilbide horretan! Eutsi orain artekoari!



APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

GURE TXAKURRAK (I)
zelako lana, halako izena

Gaur egun, Mutrikuko txakur gehixenak "etxeko animalixak" dira edo beste era baten esanda maskotak edo "lagun egitxeko animalixak". Orain urte batzuk, baiña, txakurrek zeregin jakin bat zaken: kazari edo ehiztarixei laguntzia, arraiñak batzia, etxia zaintzia...

Gizurra badirudi ere, otso espezie batetik ei datoz txakur guztiak. Erdi-basatixak hasieran, etxekotu edo domestikatu egin genduzen eta ordutik gure aldamenian bizi dira, aspalditxik, azken 20.000 urtian gitxienez. Eta, jakiña, tarte luze hortan alkar ezagutzeko astixa euki degu. Bere zientzia-izenak garbi azaltzen deu etxe--etxekuak izan ditxugula txakurrak: *Canis lupus familiaris* edo "otso-txakur familiarra".

Txakur-arraza ugari do munduan, 400 inguru. Beno, askok arraza bakartzat daka animalixa hau, izan ere, txakur-klasiak dira aukeran dozenak. Txakur bat ikusi eta holako edo halako arraza edo klasekua dala esaten degu: bulldog, collie, chihuahua, akita inu, boxer... Baiña gure aitxon-amonek txakurrak zetako erabiltzen ziran, halako izena ematen zixuen. Mutrikuarrekin hitz eginda hainbat txakurren berri izan degu.


Oillagor-txakurra

Etxia eta ganauak zaintzeko

Etxia zaintzeko txakurrei *atari-txakurrak*, *ate ondoko txakurrak* edo *txakur zaintzailliak* esaten zakue. Sasoi baten baserrixetan gehixen ikusten ziranak *arratoi-txakurrak* eta *ardi-txakurrak* ziran. Basarritxarrak kazarixak edo ehiztarixak izan ezkero *kaza--txakurrak* ere ikusi zeikezen baserri bueltan. Kazarako zaletasunik ez zakenek ganauetarako txakurrak eta *polizia-txakurrak* eukitzen zitxuen, bai etxerako, bai etxeko ganauak gobernatzeko. Baitxa *txakur mestizo* edo *nahastautakuak* ere.

Arratoi-txakurrak oso egokixak ziran etxe inguruko arratoi, sagu eta subiak galtzeko. Izatez "erria" da arratoi-txakurra, ez da oso maitekorra edo kariñosua, baiña tira.

Ardi-txakurra (eta ez *"artzain-txakurra") oso ezaguna da, gorri--gorrixa, mutur beltz-beltzarekin... Ardixak zaintzeko-eta primerako laguntzaillia da euskal ardi-txakurra. Ardi-txakur batzuk "ardixetan" egitxeko biziua hartu zeikixen: etxeko ardixak ondo zaintzen bazitxuen ere, beste toki batzuetako ardixak itxotzeko joeria hartuta. Horrelakuetan hil egitxen zitxuen txakur horrek. Olatzen entzun degunez, Olatz baillerako ardi-txakur on batek gabian Markiñako Santa Eufemiarako bidia hartuta, bertan 2-3 ardi itxo eta berriz ere etxera etortzen zan goizerako. Etxian uso, kalian otso.

Polizia-txakurrak 'pastor aleman' edo ardi-txakur alemanen tipokuak izaten ziran. *Txakur mestizuak* eta bestelako txakur gogorrak behixak eta bestelako ganauak gobernatzeko ibiltzen ziran. Batez ere mendiko zezen eta larrabehixak gobernatzeko bihar izaten ziran txakur horrek.

Kaza-txakurrak

Kazari edo ehiztarixek "ehiza-txakurrak" edo "kaza-txakurrak" dakaez, lehen bezela, orain ere bai.

Oillagor-txakurra, galeper-txakurra edo *eper-txakurra*. Arrastuan ibiltzen dira txakur horrek, musuakin, burua behian dakela. Halako baten gelditxu egitxen dira, orduan kazarixa juan eta txorixa jaikitzen danian danba! Asmatu ezkero behera, bestela ihestu. Holako txorixak harrapatzeko normalian setterrak eta pointerrak erabiltzen dira. Setterrak (leonesa, irlandesa...) illetsuak dira eta pointerrak berriz ille motz-motza dakae.

Erbi-txakurra. Galeper-txakurrak baiño belarri haundixaguak dakaz. Erderaz 'sabueso' esaten dixue. Kontu jakiña da basurdetan egitxeko bi klasetako txakurrak erabilli leikezela: basurdiari segitzekuak (arrastokuak) eta basurdiai heltzekuak (presakuak). Erbi--txakurrak lehelengo lan hortarako dira egokixak. Zaunka eginda kazarixei markatzen dixue animalixa nun barruna dabillen. Oso usaimen ona eukitzen deue eta erresistentzia handikuak dira.

Basurde-txakurra eta *aizeri-txakurra*. Normalian erbitxarako txakurrak izaten dira, baiña erbi-txakurren aldian gogorraguak izaten dira. Txakur mestizuak ere erabilli izan dira hortarako. Basurdetan egitxeko presako txakurrak bihar diranerako primerakuak. Erbi-txakurrak baiño senduaguak dira.

Txinbo-txakurra. Zozo eta birigarrotan egitxeko aproposak dira txakur horrek. Nahiko txikixak, belarri haundidunak eta illetsuak izaten dira, ille kizkurrak, beltzak jeneralian, baiña baitxa pintxuak ere. Cockerra izaten da. Eskopetarekin txorixak bota eta txorixak ekartzeko –kobratzeko– ziran egokixak. Arbi edo nabo tartian zozo-birigarrotan egin ezkero, txakurrak ahuan ekartzen zitxuan botatako txorixak, baitxa pago-usuak ere.

Ur-txakurrak

Euskal kostaldeko herrixetan bada txakur klase ezagun-ezaguna arrantzalien artian: *ur-txakurra*. Mutrikuko portu aldian ere edozenbat ikusi zeikezen sasoi baten, ixa-ixa barku bakoitzeko bat. *Itsas txakurra*, *uretako txakurra* edo *ur-txakurra* esaten zako Mutrikun; batez ere azken izen hori entzun dixeu bertako maiñelei.

Ille kizkurra eukitzen deue ur-txakurrek, zurixa jeneralian. Nahiz kaletarrek, nahiz maiñelek txakur abillak zirala aitxatu digue. Txalopa edo barkuetan eruaten zeuen itsasora, batez ere

bixutan eta papardotan ibiltzen ziranian. Tretzak edo bestelako aparijuak alatzeko orduan, arrain asko soltatzen zan amutik (lotzak, legatzak...). Ur-azalian geratzen ziran soltautako arrain harek, urdailla ahuan zakela. Halakuetan, txakurrak uretara salto egin, arraiña harrapatu eta ahuan ekartzen zoan barkuraiño. Gero, sokia botatzen zakon senua eginda, eta hankak eta burua seno barrura sartutakuan barkura altzatzen zan. Langille fiñak ziran ur--txakurrak, arraiñak jeneralian lepotik edo burutik helduta ekartzen zitxuen, hagiñik sartu gabe...

Aspalditxik ezagutzen dira ur--txakurrak Mutrikun. 1739ko kereilla baten, esaterako, Atxukalen zozen lagunetako bat ur-txakur batekin olgatzen agertzen zaku: "*una mañana hallándose la testigo en el mirador que llaman Aizeocale de esta vª en compañía de Theresa de Echea, Agustina de Echazaval y Manuel de Olazarra, y este entreteniéndose con un perro suio de Agua, le dijo la dha Agustina al susodicho que ambos se parezian el uno al otro...*".

Ur-txakurrak protagonista hartuta hainbat pasadizoren berri eman digue maiñelek, betiere irribarria ahuan dakela. Hona hemen batzuk:

"Maria Antigua" barkuari "Saturran" esaten zixuen Mutrikun. Bertako Jose San Martin "Saturran" maiñelak "Itsas" (Itxas) izeneko ur-txakurra zakan. Asturiastik etortzen ziranian zazpi-zortzi egun eginda, portura sartzerakuan, Moilla berrira aillegatzen ziranian, Kontxa bixen erdira, uretara salto egitxen zoan iñork ezer esan gabe, igarixan eskailletara hurreratu eta saltaka juaten zan bere nagusiaren etxera, Erdikokalera. Nagusiak baiño lehenuo agurtzen zitxuan etxekuak.

"Chambelena segundo" barkuari, berriz, "Txanbelena txikixa" esaten zixuen Mutrikun, nahi txa 15,92 metroko luzeria euki. Bertan patroi Pako Ituarte "Paxio" zabillela, Nicolas Urreizti "Mote" maiñelak "Señi" izeneko ur-txakur beltza eruaten berarekin. Eskabetxarako zanian Mutrikura ekartzen zeuen antxobia, baiña freskorako zanian, gipuzkuar danak Donostiara juaten ziran antxobia ateratzera. Halaixe, freskorako antxobia ateratzera Donostiara


Chambelena Segundo

juan ziran baten, antxobia deskargatzen zozen bitxartian txakurrak kalera erten eta bertan laga zeuen ahaztuta. Etxerako bidiran, Igeldo azpira aillegatu ziranian konturatu ziran. *Ene! Txakurra ahaztuta laga degu! Buelta emango degu? Laga, laga, nahi baldin badeu etorriko da eta nahi ez badeu, ez*. Halaixe, etxera etorri ziran, eta portuan sartzen zozela nun ikusten deuen "Señi" Kofraixako eskailletan, mingaiña kanpuan doala. Marka da gero, lihorretik txakurrak barkuari irabazi!

Txanbeldarrek lehengo zaharrei entzunda dakae, gerra aurrian, txalopa haundixetan Asturiasa juaten ziranian atunetara, famelixakuek ur-txakurra eruaten zeuela beurokin batera. Eta urte baten, itxura danez hango portu baten (Luanco edo Candasen) txakurra galdu egin zakuen, eta danak


Oker, Mutrikuko itsas-txakurra

penatan etorri ziran etxera. Baiña ederra sorpresia, orduan ere, Mutrikura aillegatu ziranerako txakurra bertan!!! Galdu zanetik 15-20 egunera presentau zan etxian.

Mutrikun "potxokua" esaten zako antxobatan 600 kilotik gora harrapatzen zanian arrantzale bakoitzarentzako apartatzen zan zatixari. Bosna kilo maiñelen poltsikorako. Ondarruan horri "amai ez emon" esaten zixuen. Hondarrabixan berriz, "txakurrana" esaten zixuen potxokuari. *Txakurrana* izen horren atzian, itxura danez, sasoi bateko ohitxueria do: ur-txakurrek harrapatzen zitxuen arrain horrek, maiñelen artian partitzia.

Ur-txakur asko dakez goguan maiñelek: Martintxikineko Pedro Mariren ur-txakur zurixa, nagusixa hilda gero ere zerraldo edo kajiaren atzetik juan zana, edo "Beltza", Pedro Garagartza "Kotxorro"rena, eguraldi txar-txarrarekin arraiña ekartzen zauala, ixitxuan, atezu, arraiña lagatzeko esan, baiña alpe-rrik, arraiña ontziratu arte, gogor jardun zoana!

Igarixan bakarrik ez, buzeatzen ere abillak ziran ur-txakurrak. Portuan, gaztiek olgatzeko piper-potua urez bete eta hondora botatzen zixuen. Eta, jakiña, txakurrak 5-8 metroraiño bajatu eta atera!

"Perros de lujo" edo jan-txakurrak

Orain arte aitxatu ditxugun horrezaz gaiñera, konpaiñia egitxeko txakurrak ere bazozen, jakiña, baiña oso gitxi oraingo aldian. 1947. urtian holako 70 txakur zauan Mutrikun. 10 pezeta pagatzen zeuen urtian txakur horren jabiek, "*arbitrio sobre perros de lujo*". Hiztegi batzuetan, "perro de lujo" itzultzeko *jan-txakurra* azaltzen da. Ezer egin gabe bizi ziranak, hain zuzen ere batere lanik egin gabe jaten zeuenak. Mutrikun, txakurrei baiño gehixo hankabiko batzuei esaten zakue "jantxakurrak", iñoren lepotik bizi diranei, erdi txantxetan.

Datorren hillian jarraitxuko degu txakurren gaiñeko jakingarri gehixorekin. Baiña, amaitzeko, gazte izandako mutrikuar edadetu batek esandakuarekin amaitxu nahiko neuke: "*Txakurra lagun ona da. Horrek ez zaitxu salduko, gizonak salduko zaitxu, baiña h*orrek ez".

Josu Larrañaga Arrieta

ZORIONAGURRAKZORIONAG



IRAIA
Zorionak etxeko saltserari bere zortzigarren urtebetetze egunian.



ANA
Zorionak lagun! Patons zuretzat urtebetetze eguna izan duzulako.



JONE
Zorionak! Apirilean 9 urte haundi! Zorionak etxeko guztien partez.



LEYRE eta IZASKUN
Zorionak bikote!
Segi horrelakotxe alaixak izaten!
Eutsi irrifarre horri!



ANGIE eta SARE
Zorionak etxeko dantzari bixai maiatzak 7 eta 8 5 eta 13 urte beteko dezuelako. Holakotxe alalak izaten jarraitxu. Etxekuen partez.



EKAITZ, NAHIA, GURENDA eta ENARA
Zorionak laukote! Apirilian urtiak ospatu dituzuelako. Familia guztiaren izenean matxo haundi bana!



ITZIAR eta TONI
Zorionak bikote!
Dagoeneko 30 urte ezkonduta.
Patons zuentzat ere.
Ta ospatuko dugu!

ZORIONTZEKO
E-POSTA kalaputxi2001@gmail.com
aldizkaria@kalaputxi.eus
WHATSAPP 635748393
ESKURA ANSORREGI ZAPATA-DENDA

txirritxa.com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku


ALKOLEA ARDOTEGIA
Jon Andoni Basurko Pagoaga
Tel.: 943 60 35 99
alkolea.edariak@gmail.com
Barrenkalea, 2 - behea 20830 Mutriku
Edariak eta gehiago...

Argazki Zaharrak



1974-75 denboraldia. Burumendi Gipuzkoako Txapeldun Zumarragako Argixao futbol zelaian, ekainaren 21ean

Tente: Iñaki Agirregomezkorta, Carlos Zizzo, Eduardo Lezertua, Jose Luis Uranga, Joxu San Martin, Xabier Urkiza, Jose Luis Basurko, Imanol Andonegi eta Paco Lopez (Luis Mari Ortiz entrenatzailearen ordezkoa).

Kukulumutxu: Juan Carlos Arrieta, Juan Miguel Lizardi, Guillermo Galparsoro, Raul Blanco umea, Joseba Larrañaga, Juan Inazio Aranberri, Jose Angel Lekube eta Juan Luis Urreisti.

Taldean ziren besteak: Ani Arruabarrena, Joseba Iñaki Illarramendi, Gaudentzio Burgaña, Iñaki Iparragirre, Jose Luis Martinez, Juan Carlos Perez, Martin Zabala eta Valentin Zumalabe.









www.kalaputxi.eus/botikak

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

APIRILA		MAIATZA	
22tik 25era	Hiart Burgoa	1 eta 2	Lon Apraiz
26tik 28ra	Amaia Zalduegi	3tik 5era	Lasuen Elezgarai
zapatu (27) goizean, Lasuen-Elezgarai		6tik 9ra	Amaia Zalduegi
29 eta 30	Lon Apraiz	10etik 12ra	Hiart Burgoa
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		zapatu (11) goizean, Lon Apraiz	
ELGOIBAR		13tik 16ra	Lasuen Elezgarai
		17tik 19ra	Lon Apraiz
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		20tik 23ra	Hiart Burgoa
Mercedes **ZUMETA** San Agustin 5, EIBAR 943 82 04 98		24tik 26ra	Amaia Zalduegi
		zapatu (25) goizean, Lasuen-Elezgarai	
		27tik 30era	Lon Apraiz

MENDI IRTEERAK

maiatzak 12
Guardetxe-**PUTXERRI**-Lareo-Lizarrusti

ekainak 16
Sara-**ATXURIA**-Zugarramurdi

uztailak 5, 6, 7
SIERRA CEBOLLERA (Errioxa)

irailak 8
Egino-**OLANO**-Otzaurte

urriak 13
MANDOEGI

azaroak 17
Elizondo-**ALBA**-Elizondo

abenduak 1
ARNO inguruak

Burumendi Mendi Elkartea

egitarauak eta deialdiak: aldizkaria@kalaputxi.eus edota whatsappa 635748393

AGENDA

LIBURU ASTEA

apirilaren 29tik maiatzaren 3ra
Liburuen merkatu txikia
Liburutegiaren atarian, 10:00-13:00 eta 17:00-20:00

maiatzak 2, eguena
Ipuin kontaketa
"Ibili alai, ipuinetan blai"
Izaskun Mujika
Liburutegian, 17:00etan

maiatzak 3, barixakua
Bertso saio literarioa
Danele Sarriugarte idazlea eta Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolariak
Zabiel kultur etxean, 19:00

Ondoren, Ziriako Andonegi Mikro-ipuin lehiaketaren sari banaketa.

HISTORIA JARDUNALDIAK

Zabiel kultur etxean, 19:00etan

maiatzak 9, eguena
Errepublikanismoa Euskal Herrian. Eztabaidarako gaia.
Unai Belaustegi

maiatzak 16, eguena
Zein da euskal heroina?
Leyre Arrieta

maiatzak 23, eguena
Lizarrako Forua, Mutrikuko Forua. Emakumeen eta haurren ikuspegi juridikoa XII. Mendeko legean.
Xabier Irujo

ODOLA EMATEA

ekainak 14, 18:00etan
anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

ZINE FORUM

zabiel kultur etxean · 22:00etan

maiatzak 31, barixakua
DANTZA

maiatzak 2, eguena
Hitzaldia:
"Ekintzailetza? Eta zergatik ez?"
Zabielen, 18.30etan

maiatzak 4, zapatua
Ikastolako ikasle ohien bazkaria

maiatzak 11, zapatua
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa
Sailkapen faseko saioa
Zabiel kultur etxean, 17:00etan
Ane Labaka, Gorka Maiz, Eneko Araiztegi, Eneko Beretxinaga, Unai Izagirre eta Julen Zulaika

maiatzak 15, eguaztena
BERTSOMETA
Herriko ikasleak ere bertsolari
Kiroldegian,17:00etan

maiatzaren 20tik 24ra
ASTE MUSIKALA
Zabielen, arratsaldez

maiatzak 25, zapatua
Euskal Erromeria
Eguerdian eta arratsaldean

maiatzak 31, barixakua
DANTZA pelikula

ekainak 2, domeka
Umeen Euskal Jaia

zuen elkartearen ekitaldien berri emateko idatzi helbide honetara:

aldizkaria@kalaputxi.eus

eta hemen argitaratuko ditugu iragartzeko dituzuenak

Meka
Lanbide Eskola

ATE IREKIAK MAIATZAK 10

FORMAKUNTZA ESKAINTZA

2019-2020 ikasturtea



ERDI MAILA

Makinariaren Elektromekanika
Mendepekotasun egoeran dauden pertsonei arreta
Administrazio Kudeaketa
Soldadura eta Galdaragintza
Erizantzaren Laguntza
Ibilgailuen Elektromekanika
Karrozeria

GOI MAILA

Metal Eraikuntzak
Haur-Hezkuntza
Automozioa
Administrazioa eta finantzak

ESKAINTZA PARTZIALEAN

Erizaintza zaintza osagarriak
Galdaragintza eta Soldadura
Gizarteratzea
Automozioa

www.meka-elgoibar.net 943 748 019 bulegoa@meka.elgoibar.eus

Eibar BHI

4B Arte Batxilergoa

Aurrematrikula maiatzaren 2tik 14ra



ATE IREKIAK

maiatzaren 2an

18:00etan



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 E-mail: 012055aa@hezkuntza.net





HaUrreSkoLaK









Mutrikuko Haurreskola

943 60 41 19

mutriku.mutriku@haurreskolak.eus

www.haurreskolak.eus

matrikulazio epea:

maiatzaren 2tik 10era

irailean, urrian edo azaroan hasteko

